

Hitza ukatzen zitzaienen ahotsak entzunarazi dituzten hiru idazle

Kate Chopin eta Maryse Condéren ipuinak eta Edna O'Brienen lehen eleberria eman dituzte argitara Literatura Unibertsala bilduman

NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. Jatorri eta bizi-esperientzia arras desberdineko hiru emakume idazle iritsi dira ia batera Eusko Jaurleritzak eta EIZIE euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarrekin aspaldian sustatzen duten Literatura Unibertsala bildumara.

Joxe Mari Berasategi Zurutuza-
ren eskutik, Maryse Condé ireki zion bidea hirukoari abenduan, 'Bihotza negar eta irri. Ene haurtzaroko istorio egiazkoak' ipuin bildumarekin. Berasategik berak euskaratu duen Kate Chopinen 'Ekaitza eta beste 34 ipuin' eta Gema Lopez Las Herasek itzulitako Edna O'Brienen 'Landa aldeko neskak' oraintsu heldu dira.

Berriki elkarrekin aurkeztu dituzten hiru liburu horiek osatu da iazko martxoan Koro Navarrok euskaratutako Ernest Hemingwayen 'Fiesta: Eguzkia jaitzen da' rekin ireki zen 2021eko lauko sorta. Azken hamar urteotan egin bezala, Igela eta Erein argitaletxeak arduratu dira edizioaz.

Nabarmenak dira hiru idazleen arteko diferentziak. XIX. mendeko estatubatuarra izan zen Chopin, orain arte euskarara ekarrita zegoen bakarra. Belaunaldi berekoak dira O'Brien eta Condé, XX. mendearen hirugarren hamarkada-koak. Adintsuak izan arren bizirik ez ezik sortzen jarraitzen dute biek. Adinak hurbiltzen baditu ere, elkarrengandik urrun daude guadalupetar beltza eta irlandar ilegorria jatorriari, ibilbideari eta obrari erreparatuz gero.

Ikuspegi partekatua

Desberdintasun ugariak ukatu gabe, hiru idazlearen arteko antzekotasun esanguratsu bat nabarmendu zuen Lander Majuelo Igelako editoreak: ikuspegia, nola saiateren diren inguruan duten jende xumea -txi-roak, esklabo izandakoak, baztertuak...- duintasunez tratatzen, eta hitza ukatzen zitzaien haien ahotsak entzunarazten. Ausartak dira idaztean, eta bizitzean ere bai.

Hirurak oinarritzen dira gainera beraien eta beraien inguruko bizipenetan. Condéren lana, esaterako, «kontakizun autobiogra-

fikoa da, ipuin liburu gisa ere har daitekeena». Bere liburu askok zeri-kusi zuzena dute bizitako esperientziekin. 1999an argitaratutako 'Le cœur à rire et à pleurer' honetako 17 kontakizunetan haurtzaro eta nerabezaroko kontuak jaso zituen, Antillak eta Paris artean. Oso asperrak iruditzen zitzaion orduan umeen bizimoduak, baina «azkenean nire haurtzarora oso aberatsa izan zen -idatzi zuen gerora-. Pentsatzen ikasi nuen. Txarrena mundua guztiak bezala pentzatzea da». Hori ez da sekula izan gaixotasunak ezinduta badauka ere senarrari nobela bat diktatzen ari zaien idazle eta aktibistaren kasua.

Gizartearen alde erosoan jaio zen halaber 1850ean Missourin jatorri irlandar eta frantziarreko Kate O'Flaherty. 19 urte zituela Oscar Chopin merkatariarekin ezkondu eta New Orleansera joan zen bizitzera. Joxe Mari Berasategik gogoratu bezala, bizitza sozial oso aktiboa zuen bikoteak, baina Kate Chopinek saloi dotoretako leihoen bestaldean zegoenari ere errapatatu zion. «Bere gai nagusiaren artean daude cajun indiarrek, esklabo izandako pertsona ustez aske horiek, jende xumea eta nagusiki batere konbentzionalak ez diren emakumeak, emakume eskubidedunak. Egiazko gertaerak kontatzen zituen, azken egia bat ateratzeko ahaleginik egin gabe». Liburuan jaso diren ipuinak Ana Moralesek hautatu ditu, eta bi bildumatik hartuak dira. Argitaratu ziren hurrenkeran paratu dira, kronologikoki. Erregistroak bereizteko, «jende notableak euskara batu jasoan egiten du, eta jende xeheak txikitako belarrian dagoen zegama inguruko euskararen», argitu zuen itzultzaileak.

Ez zuen luxu eta festa askorik ezagutu umetan 1930ean Clare konderriko herririk batean jaio-tako Edna O'Brienek. Garaiko Irlandari buruzko topiko txar denak zeuzkan etxean: aita alkoholiko eta jokozalea, ama oso erlijioso, pobrezia, landa eremuko etorkizun eza... Gema Lopez Las Herasek azaldu bezala, «txikitatik nahi izan zuen alde egin» giro itogarri hartatik. Farmazia ikasi eta botikari jardun zuen bolada batez, baina idazle batekin ezkondu, Londresera joan eta, 1960an, hiru astean idatzi zuen bere bizipenetatik hurbil zegoen 'The Country Girls' trilogiako lehen eleberria: 'Landa aldeko neskak', Irlandan piztu zuen polemikaren munta bertuko arrakasta izan zuena.



Joxe Mari Berasategi Zurutuza eta Gema Lopez Las Heras, itzulpenak aurkeztu ziren eguneko argazkian. usoz

Maryse Condé (1937)

Sustraien eta identitatearen etengabeko bilaketa



Herenegun 85 urte bete zituen idazlea Boucolon abizenarekin jaio zen Frantziar Antilletan, «beltzak zerbait izaten hasi ziren

garaian». Ama, esaterako, Guadalupeko aurreneko maistra beltza izan zen. Lehen senarraren abizena gorde duen Condé etxe oneko neskato bati zegozkion bizimoduak eta hezkuntza erabat frantzesak izan zituen. Gauzak aldatu ziren Parisera joan eta, 19 urterekin amatasunari bakarrik aurre egin behar izateaz gain, giro antilontan murgildu eta bere sustraien eta benetako izaeraren bila hasi zenean. Bidea ez zen erraza izan. Urte gogorak igaro zituen Afrikan. Londresen egonaldi laburra egin ostean, 1970etik aurrera irakasle izan zen Frantzia eta AEBetako zenbait unibertsitatetan. Frantziako hego-ekialdean bizi da gaur egun idazle berantiar baina oparoa, ia denarik idatzi duena. «Arrazismoa, kolonialismoa, esklabotasuna, migrazioak, generoa, magia, maitasuna...» gai zentralak dira bere lanean.

BIHOTZA NEGAR ETA IRRI ITZ. JOXE MARI BERASATEGI

Literatura Unibertsala, 180 Argitaletxeak: Erein/Igela Orrialdeak: 152. Salneurria: 14 euro.

Kate Chopin (1850-1904)

AEBetako funtsezko idazle eta literatura feministaren aitzindari



Gazterik ezkondu zen Kate Chopin, eta gazterik alargundu, sei seme-alabaren ardura bere gain hartuz. Idazteko zaletasuna gaz-

tetatik zetorkion, baina alargundutakoan hasi zen kanporako idazten, zaletasuna garatu eta sos batzuk eskurtzeko esperantzarekin. Ez zen ordea konformatu bere mailako dama bati zegozkion gaiekin, eta Berasategik esan bezala «arazo handiak izan zituen gaiekin», ez baitzen ohikoa, eta ez zegoen ongi ikusia, ipuin eta eleberrietan -hiru idatzi zituen, bi argitaratu- esklaboen eta emakumeen eskubideez aritzea. Istorio labur gehienak, berriz, egunkari eta aldizkarietan argitaratu ziren. Hil eta gero, ahazten joan ziren Chopinen lanak, 1932ko biografia batek haren inguruko interesa berpiztu zuen arte. Joxe Mari Berasategik adierazi zuenez, egun AEBetako funtsezko idazleetak bat da Chopin, eta 160 doktore-tesi egin dira literatura feministaren aitzindari ere baden idazleari buruz.

EKAITZA ETA BESTE 34 IPUIN ITZ. JOXE MARI BERASATEGI

Literatura Unibertsala, 181 Argitaletxeak: Erein/Igela Orrialdeak: 384. Salneurria: 20 euro.

Edna O'Brien (1930)

Neskatila irlandarren askatasun eza salatu zuen emakume askea



'Landa aldeko neskak'-en, Caitleen eta Baba protagonisten bidez, neskatilo irlandarrek eliza katolikoa-
ren eta familia-

ren aldetik jasaten zuten askotariko opresioa utzi zuen agerian O'Brienek, haien askatasun gosea aldarrikatzearekin batera. Kutsu autobiografiko nabaria duen eleberri atsegina, geruza asko dituen betiere, eskandalagarria izan zela sinestea ez da erraza. Hala ere, «dena bekatu zen garaian» idazleari ez zitzaion doan atera abade, moja eta guraso askoren gehigeriak agerian jartzea, haien aurka -patriarkatuaren kontra, azken batean- oldartzea eta askatasuna -sexuala, besteak beste- aldarrikatzea. Irlandan debekatu egin zuten liburua, apaizen batek sutara ere bota zuen, eta sekulakoak entzun behar izan zituen, baina jada klasikoaren artean dagoen idazleak hartu du bere ordaina, 1962an eta 1964an argitaratutako eleberriei osatu zuen trilogiarekin eta geroztik ekarri dituen lan ugariarekin.

LANDA ALDEKO NESKAK ITZ. GEMA LOPEZ LAS HERAS

Literatura Unibertsala, 182 Argitaletxeak: Erein/Igela Orrialdeak: 304. Salneurria: 17 euro.